SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK

**BAT**

SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK
SAIOAK




NR 47-81
CEDOC
FONS
A. VILADOT
[1]
UAB
Biblioteca de Comunicació
i Hemeroteca General
CEDOC

CEDOC
BHCR
TOGA.JV A

Gure borrokalari eroriak ozenki kantatuak izan behar direlako, gure lehendabiziko alea Heriotzari buruz eginaz hasten gera.

Rikardo Arregi, Xabi Etxebarrieta, Asurmendi ta Artajo, Urabain-go sakristaua, Josu Murueta ta Antonio Fernandez Erandio-ko langileak, hauek dira gure herri-berpiztearen lehen opariak. Hauei bada gure loria.

Denbora hauetan Burgos-eko militarrek sei abertzale anaientzat ere heriotza eskatu bide dutelako, gai honeri lotzen da gure lehen ekinaldia.

Sei hoekin batera, eguneroko borrokatik denbora luzez hilda egongo diren gure presondegiratu guziak ere otoi-kide gatzaizkie.

«EDERRA BADA HERRIAGATIK HILTZEA
ZEIN EDERRAGO HERRIARENTZAT BIZITZEA
HERRIAGATIK
BEHAR BALITZ BIZI
BEHAR DA IRABAZI» (harzabal)

Hilak. Bizirik zenbait hilak. Zuen abotsa dugu aitzindari. Borrokaren gidari. Euskal Herrian izar eta izardi. Opariaz omena. IRAULTZA JARRAIPENAZ.

Este primer número lo sacamos como homenaje a nuestros luchadores de estos últimos años: muertos, condenados a muerte y condenados a la muerte del silencio en las cárceles franquistas.

**SAIOAK.**

UAB
Biblioteca de Comunicació
i Hemeroteca General
CEDOC

## PRESENTACION

«SAIOAK» argi poxin bat gehiago erakarri nahi dio euskal arazoen kutxa ilhun honeri. Eta gure euskal prolemak ezberdin mota ainitzetako direlarik, aldizkari honek KULTURA ta POLITIKArekin zer ikusi duten pontutaz axolduriko da.

«SAIOAK» gure herria bizkortu nahian gabiltzanon aldizkari bat izan nahi du: zin-zinez herriari askatasuna eskeini nahi diogun guzion aldizkaria. Beraz, benetako askatasunaren aurka dohazten estakuru ta traba guziak apurtu nahi genituzke.

Askatasuna herri-kide denoren beharra danez geroz, herrikoi BATASUNAren ardura izango da aldizkari berri honen ondoan mogitzen geranon buru-hauste nagusia.

Kreatzearen garaitan gabiltza; gordetzea honen gomendio hego! Zertarako gainera gorde ta kontserba, bizkortzearren ez bada? Gure gaurko bizkorketak herrikoi indar guztien alde jokatzera garamazki, eta herrikoi indar hoek bikoitztasunean kreatzen eta indarberriagotzen ari zaizkigu, zanpazioak mintzaira biko herri-seme halakatu gaituenez.

«SAIOAK» errealitate gordin hontan errotzen da, bere sustraiak kultura kreatzaile berri bat lantzen eta landuko duten gizasemegan tinkatu direlako. Kultura kreatzaile honen adiarazia BAT bakarrik izanik ere —gizonaz gizonaren zanpazioa aiitxatzea—, bere adiarazkia mota BIZ datorkigu, zorion ala zoritxarrez: euskeraz eta erderaz.

Gu ez gaude erderaren kontra, euskeraren alde baizik. Ezin dukegu neholaz ere baztertu erderaz besterik ez dakien indar sortzailea. Aitzitik ordea, indar berri honeri irakats albagenio euskeraren eta euskaldunen egoitza larria, ez genioke bere jatortasunean lasai bizitzen utziko. Gure herriko erdal indar-kreatzaileek bada oihuka gatozkite euskeraz landu behar dugun soro ugaria jorratzen lagundu dezaiguten.

Hoek, gurekin batera, borrokatu behar baitire Euskal Herriko seme guzti-guztiri nehork debeka ez dezaion euskeraz egiten eta hezitzen. Guztion bortxa beharko baitugu Euskadi askatzeko.

«SAIOAK» bada herritar guztiak komunzki uztarkidetu nahi ditu KULTURA ta POLITIKA alorretan. Halatan litake soil-soilik gure eginbidea betakor izan.

## HELBURUAK

Hacer un poco más de luz en los problemas vascos es lo que persiguen estos «ENSAYOS». Pero teniendo en cuenta que la gama cualitativa de nuestra problemática presenta un sinfín de regiones, nos dedicaremos tan sólo al quehacer de nuestra CULTURA y de nuestra POLITICA.

«SAIOAK» se pone así al servicio de cuantos desean vivificar y revitalizar nuestro pueblo vasco; la libertad es nuestra única meta, cuantos obstáculos imposibiliten la libertad de nuestro pueblo serán nuestros enemigos a combatir. Por todo ello cuantos nos hemos juntado alrededor de esta nueva revista pretendemos unificar todas las fuerzas vivas y vitalizadoras, perseguimos la UNIDAD de todas ellas, puesto que la libertad es la tarea común de todos los Vascos.

Se impone por consiguiente un rumbo creacional; conservar químicamente puro lo que existió, solamente tiene sentido en la medida en que se oriente a crear lo que debe existir. Este revitalizar nos llevará pues a impulsar a todas las fuerzas populares que, bajo las coordenadas históricas de opresión de nuestro pueblo, estan surgiendo ya bajo una doble vertiente: euskeraz y en castellano.

«SAIOAK» se funda en esta realidad que, guste o no guste, esta llevando adelante al unísono la creación cultural libertadora —acabar con la opresión del hombre vasco— por unos cauces paralelos de bilingüismo.

El erdera no constituye la raíz de nuestros males, nuestra lucha es más positiva; luchamos por el euskera, y sin arrinconar a quienes se han visto privados de él, intentamos enseñarles y exigirles, como fuerza creadora vasca que son, su obligación de insertarse en la lucha contra la situación caótica de los euskeldunes. Estas fuerzas nuevas deben ayudarnos a crear la plataforma ú[illegible]til de nuestra cultura euskeldun; con éstas debemos contar para que todo vasco pueda expresarse y elegir libremente su desarrollo cultural. Euskadi la libraremos todos o no la librará nadie.

«SAIOAK» no cejará pues hasta que todos los Vascos nos pongamos manos a la obra en las tareas acuciantes de crear en común nuestra CULTURA y de construir nuestra POLITICA.

UAB
Biblioteca de Comunicació
i Hemeroteca General
CEDOC

# HASERA- HASERATIK

*Joxe Mari Matxain*

«SAIOAK» aldizkariaren lehendabiziko zenbakiaren orriak metafisikarako prestatzen den heriotz gaiarekin zikintzen ditugu.

Metafisikaren bidetan sartzen ote gera hasieratik?

Euskal gizonaren arazo nagusienetakoa delakoan, aukeratu ote dugu? Euskal gizonaren arazoen muinean balitz bezela, bere kemenaren mugitzailea gertarazteko asmotan al gabiltza?

Galdera hauek bere errealitatea ba dutela usten dugu. Galdera hoen baiez-kuntzek markatzen duten sentiduan heriotzaz idatz genezake. Zeren zenbait ezkertiar deitzen danak beste gai batzurekin honela jokatu ohi du. Hoetarik ba zen zenbait Londres-en finkatutako blankista artean, sozietatearen bilakatzea zutelarik helburu, pratikan ez ziren helburu honen gidari, hots, ez ziren klase-borrokaren zuzendari, erlijioaren etsai hamorratu baizik. Gure herrian ere, garai batean behintzat, ahuleziaz jositako zenbait ezkertiarren eguneroko bizitzak eta hizketaldiek seksual eta erlijio-iraultza Herri-iraultzarekin nahasten zituztela adierazten digute. Hauxe da, ezkertiarren artean ezkertiarrenetako bezela agertuaz, eskuindarren jokabidean erortzea. Beharrezko diran seksual eta erlijio iraultzak, edonork trabatzekotan, berauek trabatuko dute.

Beraz aldizkari hontan egiten diran entsaioak ez luteke jarraitu nahi galdera hoen baiezkuntzek idekitzen diguten bidetik barrena.

Heriotza, gure herri egoitzan behintzat, dokmakeria batean erortzeko gai prestagarri dela iruditzen zaigu. Entsaio hoetan ez da dokma berririk proposatzen. Zenbaki honen helburua. Eleiz-jerarkikoak herriari proposatzen dizkion heriotzarekiko ideiak apurtzea balitz, ez genduen heriotzaz idatziko. Dokmaz apurtutakoa, apurtu bezain dokma da.

Ez dakigu zer den heriotza. Eta garrantziko ote da hau jakitea? Ez dugu metafisikarik egin nahi heriotzaz. Baina herria heriotzarekin oroitzen dalako eta bere borrokalari batzuek heriotzara kondenatzen dituztelako ezin genezake gai hau alde batera utzi. Zuzen-zuzen, entsaiu hoek herriaren heriotz-sendimendu hori jaso nahi luteke. Gaur herriak erreflejuz bizi duen heriotz-sendimendua, erreflejuki bizi arazi nahi diogu. Baina berriro harrisku batean eror gindezke: Dühring, blankistak eta gure herriko zenbait ezkertiar erori den antzera. Erreflejuz bizirik dagoen heriotz-sendimendua erreflejuki bizi araztekin batera, entsaiu hoek ez dute herri-borroka politikoaren atsedena edo atzeratzailea izan nahi.

Entsaiu hoek, herri-arazoaren muinaren barnean finkaturik, muin horren zerbitzurako izan nahi luteke. Baina desio hau ez ote litzake ilusio huts bat? Bi errealitate hoek ba al dute elkarrekin zer ikusirik? Galdera hoen erantzunak beste bi galdera bururazten dizkit: Nork moldatu du gaurko herriaren heriotz-sendimendua? Hitzlariek ote? edo-ta biharko maila abstrakto batetan amildurik, goitik behera talde batzuk «preparatzen» ari diranak? ala borrokaren praxis batek?

Azken denbora hauetan, heriotz-sendimenduaren aldaketa argi nabari da gure herrian.

Gure aitona heriotzaz heriotztua bizi izandu zen. Halere azken lerro honetan ez ditut hitz guztiak aski neurtu. Zeren, gure aitonak heriotztuta bizi izandu baziren, nola izango ote ginan gaur geranok? Nola ote litzake euskal-herriko fabriketan horrenbeste abertzale-langilea? Nola ote itxas-gizonen ausardia etsaiaren aurrean itxas ertzetan paseatu? Gure aitonak beraz etziren heriotztuta bizi, nahiz bere heriotz-sendimenduak heriotzkor bizitza batera bultzatu. Gure aitonen bizitzan ba zen beste zenbait sendimendu (beste indar mugitzaile), bere eguneroko bizitzan osotuz gero, gure gurasoen bidez eskuratu ditugunak. Baina hau ere egia da: bere bizitzaren mugitzailerik bat heriotza zen eta mugitzaile ukatzailea gainera, hau da, negatibua. Heriotzak heriotzkor bizitzara mugitzen zien, heriotzaren morroi izatera alegia. Ondo ikasi bait zuten apezek ziotena: «ezfitzazula (bekatuak) heriotzeraino zurekin eduki, zeren hartaraz-gero, periletan iar zindezke, zerori hilagatik, hek bizirik geldi litezin. Zahartzeraino bekatutan dabilana ezta peril gabe...» (Axular).

Hara hor bere bizitzaren neurtzaile bi: heriotza ta bekatua. Honegatik bekatu ta heriotzaren aginduetara bilduaz, estatikotasunaren gaitza zuten berekin. Neurri hoek bide berriak topatzeko traba ziren.

Baina hau ez da egia osoa. Iparaldeko Euskal-Herria ere euskalherria danez, bertako aitonek, Zuberokoek, batik bat, ez zuten heriotzaz berdin pentsatzen. Heriotza bere bizitzaren bukaera zen, eta kitto. Mundutik ihesa. Desberdintasun honen agirietako bat kanposantuak dira. Hegoaldeko kanposantuak askoz ere tetrikogoak edo ilunagoak dira. Lurralde hontan, Port Royal-eko protestantismoa batik-bat sustraitzerakoan, heriotz-sendimenduari buruzko gure aitonen desberdintasunaren zergatia, topatzen dugu.

Halere Hego-aldeko herritar kristau askorentzat gaur heriotza ez da herri borrokarako traba bat. Kristau heriotzak ez ditu mundu hontako eginbeharretatik urruntzen. Ongi ikasi dute eskuak beterik Jaungoikoarengana inguratzea zer den. Ez dute eleiz barneko otoitzaren hustasuna ta bere ondorenak «hor daude»; euskalherriaren trabak gaur aska ditzagun.

Kristau hoengan (ez direnen baitan bezela), errealitate ukatzaile ugari nabari da. Bainan gure aitonen bizitzan heriotzak zuen negatibu zama apurtu egin dire.

Gaur zenbaitentzat heriotza iraul-

UAB
Biblioteca de Comunicació
CEDOC

tzaile bide bat da. Xabirentzat hala zen. Heriotzaren ikur hau «Xabi Etxebarrieta: Euskal-Herri-ko trajedia ezeztatze modernuaren» egileak garbi azaltzen duelako, ixiltzea hobe dut.

Zerk ekarri du heriotz-sendimenduaren aldaketa? Zein izandu da aldaketa honen eragilea? Has gaitezen arestian egin ditugun galdera hoen erantzunaren bila.

Marxismoa komprenitzeko Lenin-en erak erlijioa «opium» zela aitortzera eraman zuan. Aitorketa honen ondorioa garbi zen marxista guzientzat: borrokatu erlijioaren aurka. Bainan borroka bideak ez ziren danentzat berdinak. Hara Lenin-ek zer dion, «Attitude du parti ouvrier à l'égard de la religion» artikulotxoan: «On ne doit pas confiner la lutte contre la religion dans une prédication de cette nature; **il faut lier cette lutte à l'action concrète du mouvement de classe visant à faire disparaître les racines sociales de la religion».**

Ez dedila gure borroka ideolojia abstraktu baten hotsegitean finkatu. Eguneroko borrokan erlijioaren zuztar zozialak igartzen dituzten eran, konturatuko dira erlijioa herrietako «opium» dela.

Exeplu edo adibide hau errebista hontara ekartzen badut, ez da errelijioa herrietako «opium» dela aitortzeko, eztare erlijioaren aurkako borroka-bidea pizteko. Ez da une hontako gaia.

Lenin-en hitz hoek irakurleak har ditzala segidako lerroetan adierazi nahi dugunaren adibide bezela.

Gure aitonen denboretan heriotz-sendimenduak zedukan negatibu zamaren hilketa, ez zen gaurko heriotz-sendimenduetan ideologia abstraktu bat predikatzeagatik gertatu, baizik herritarrak herri arazoaren muinaren borrokan sartu direlako. Ez dut sinplekerian erori nahi, borroka politikuak aldaketa hau soil-soilik sortu duala esanez hauxe bakarrik adierazi nahi nuke: herri-borroka bilakatze honen funtsezko mogitzailea izandu dela. Beraz, heriotzak ba du zer ikusirik herri arazoaren muinarekin; Hau egia dalarik, lehen esan dugun bezela, entsaiu hoek ez luteke herri arazoaren muinetik aldendu nahi, baizik muinaren barrendik herriaren heriotz-sendimendua jasoaz, herriko gizonaren zerbitzari zintzoa izan nahi luteke. Eta oado esan dut herriko gizonaren zerbitzari. Borroka politikuak gizon-gizarte berri bat sortu nahi badu, bere konplejotasun osoan hartzea behartzen du borroka. Praxisa theorizatzea ez da bakarrik borrokaren theoria eta estrategia bat sumatzea, gizon-gizarte praxis guzia theorizatzea baizik. Gizartea bilakatzeko konplejotasunak, konplejotasun giro hontan mugitzera behartzen gaitu.

Beraz entsaiu hoen helburua ez da herri arazo nagusienetako bat agertzea, eztare borrokaren atseden bat izatea, herri borrokaren konplejotasunak agindurik gizon-gizarte berri bat bilakatzea baizik.



# heriotza biologiaren ikuspegitik

d. peillen

Zuzia erretzez bizitzen da eta erretzez hiltzen: hala zion Axular-ek; hala, urrats bakoitzean bizia, heriotza prestatuz dabila. Hortakoz biologiak ematen duen segurantza handiena: hil beharra da. Biziaren erakundean, antolamenean, fisiku ta kimiku egipen frango dira eta horietatik bat, beharrezkoa dena, heriotza da. Zer nahi eginik ere, berandu egiten badugu, kanpoko ukaldi bat ez bada, barreneko hira batek, garamatzi.

Jon Mirande-k «Nihil igitur mors est» olerkian dio: «aihan da harra frutuetan». Sortu bezain laister, jaiotzean bertan, harraren arrautza gure barrenean errunik dago eta zahartzea du izena. Gure barrenak kanpoarekin dauzkatzan hartu emanak *Metabolismu* izena hartzen dute. Metabolismu hori betiko gorabehera batean dabila: alde batetik *Anabolismu* har-emanetan gorputza kanpoko hazkuriez elikatzen da, bere ekaia, bere sustantzia egiteko; bestaldetik *Katabolismu* delako sisteman, kanpoan eta sustantzian hartu ekaiak erretzen dira, gorputzari Kimi-energia eta bero-energia emateko. Egite eta desegite lan hori jaiotzean, haurtzaroan hasten da, bainan gaztaroaraino Anabolismu egilearen azkartasuna. Katabolismu desgileari nagusitzen zaio eta gaztea handitzen hazitzen da. Handitzea bururatu baiko, jende umotuen adinean, Anabolismuaren gorak eta Katabolismuaren beherak bardintzen dira. Zahartzaroan, berriz, desegitea egiteari buruzagitzen zaio: bateik sustantzia —hots zelulak— laisterrago hiltzen dira, eta ez hain errez berritzen bestetik indarrak ere ahultzen dira, behin betiko estualdian, mekanika eder eta hauskorrean, zelula gehieg hilik eta gorputz guzia gelditzen da.

Noski, biziaren eta heriotzaren kontu hortan, batzuk besteak baino laisterrago heriora doatzi: zahartzea Mendel-en legeak jarraituz, ondokoei ematen zaioten dohain bat baita eta dohain hori, biziaren baldintzak gaizki erabiltzen dute. Azken ordua nola gertatzen den eta nola ezagutzen ahal den norbait hil dela, oraindik

Biblioteca de Comunicació
CEDOC

edo, hobeki erran, gizon batean eta haur baten ilhobiak. Harpe batean, koba batean, Breuil eta Obermayer igaro lekuan, bainan barrenago, gizon bat zetzan besoak eta ankak plegaturik, eskuak bidarra-kokotsa heusten zuela. Jartze hortan, haragi zatiak salbatu dira eta gorputzaren itxura buztin-lurrean moldatu; horregatik usteldu gabe haragiak plastifikatu nahi zituzten eta ilhobia legortu ondoren lurra inguruan osorik ebaki dute, bloke batean dena Santander-era eramateko, ber denboran gorputzarend moldea eta haragiak salbatzeko. Gizonaren ondoan haur bat zagoen, hezur bihurtua.

Heriotza gaitz bat, eritasun bat ote? Gorago ikusi dugu zahartzea dela zelulen ez eraberritzetik etortzen, orduan batzuek gogoan daukate virus bat dela gelditze horren kausa eta virusa aurkitu ondoren, ez zahartzeko bide bat aurkituko dutela. Aurretik ere nion, heriotzaren muga gure kromosomuetan irari koda batean zegoala; beraz jakintzalari batzuek uste dute, giza-genetikaren segeretu hori asmatzean, koda hori aldatu, bestelakatu litekela, heriotza galduerazteko. Hori lan luzea izango da, gizonaren kromosomuentan *gena* guti ezagutzen baitugu eta, hiltzea *gena* askoren peko izango da.



Heriotzaz, beraz, ez dakigu dena eta La Palisse aitzindariaz bezala kondatzen ahal dugu:

«Ordu laurden bat hil baino lehen.

Oraino ondo bizirik zen».

Frantziako sendagileen bilkuretan, azkenik, elektroenkephalograma ezetzkor izatea zela heriotzaren seinale hon bat, buru-muin hila ez baita ber'etortzen ahal. Ber' etortzen diot, biologilariek ez baidute hil-irudipenetik baino jeandea salbatzen ahal. Berpiztea piztea, klinika-heriotzetik salbatzea edo hilogorretik salbatzea da; ez da jakintzaren eskuko, bainan mirakuiluaren gain. Batzuek diote, tomba iriki batzu ikusi ondoren, hilak karakoillatuak, konkortuak ikusiz, biziri erortziak izan direla; hori hutsa da zeren gorputza usteltzen hasten denean baita jendearen itxura kanbiatzen, gainera biologiak ezagupideak metatuz segurtasunera irixten da.

Artean, zahartzea eta hiltzea galdutzeraino, jende batzu hiltzean eta klinika heriotzaren ertzean, jakintzalarien eskuetan jartzen dira, haiek *azota-ur* ontzi batean sartzen dituzte izoztera. Frantses dirutan, ezhilkortasuna itxo egileko egurukitzeko bide hori, hogei mila Libera Berri kostatzen da, azotaren berritzea urtero mila libera; halere ameriketan Immortality-Club-ak badira eta hotzean ipini hila halaxen egongo da ezilkortasuna lortzeko bideak aurkitu arte, orduan ahal baldin bada, iratzarraziko dira, arauez lur ederrago batean. Hortara heltzean, nagozu ez ote den heriotza gauza on, bakoitzak bere aldia, bakoitzak bere lekua izan dezan, lur herstu hontan bizitzeko.

UAB
Biblioteca de Comunicació
i Hemeroteca General
CEDOC

# XABI ETXEBARRIETA:

## Euskal Herriko trajedia-ezeztatze modernua

Mikel Azurmendi-k



GAURKO GIZONEI EZ ZAIE BERRI BAKAR BAT BESTERIK GELDITZEN. ETA ZAHARRA DUGU BETIKO BERRI HAU: HERIOTZA (Baudelaire).

Erdi entseiu erdi poetiko delako hau irakurtzerakoan, gaia eten batzuren sorta bat besterik ez duzu irakurriko. Honela dala aitortzen dut haseratik, beste moldez ezin bai dut: euskal egitearen neurria guzion bizitza etenak egiten duanez.

Denbora ainitz ez duela, etenik geundela adierazten zidan barneko lagun batek. Laxo bizi gare, bai; uretatik kanpo, edo ur axalean gehienez. Denek ditugun kateak halere, laxokeria mehar bat uzten digute: nola barnean hala kanpoan gaudenoi. Poetari hitz neurtua, langileari erreforma ihertuak, ekintzaileari bizitza ez zilegi bat. Denok laxo ta etenik gaude, hintzen lagun hori! (1).

Etenkeria hau lot beza bakoitzak, bere burua borrokaz uztarri komunean itsatsiaz. Halatan lotki bat proposatuko nuke entseiu hau irakurtzerakoan: etenikako bizitza borrokan badabil, komunzki etorriko zaigu-ta HERIOTZA. Eta herri osoaren heriotzak bizitza aberats bat luzatuko die besteei. Hara lotkia:

1.— TRAJEDIA: egon/izan.

2.— Hiru drama edo ekintzaldietan trajediaren apurtze bat.

3.— Amaia da hasiera (izan nahi duenak ba daki heriotzan dagoela).

4.— Iraultzailearen heriotza (HEGEL-en irakurtze bat).

## 1. *Trajedia: EGON/IZAN.*

Gertatzen dana gertatu ohi da, eta alderantziz ezin gerta liteke. Gertakariari ez diozu ihes egingo: haren geriza hala baita, galerazi ezinekoa da. Naizenetik beste izan al nindeke?. Zoriaren legeak bagaramazki, libro al gira?. Bere geriza baitan nagusitzerik bai ote, edo ta morroitzan gare betirako?.

Hau da trajedia: irtera gabeko egoitza latzetan aurkitzen dire pertsonajeak. Zoru gabeko zaku luze-luzean sartuak dire ta atzerakadarik ezin egin. Edo ta atzera-

kada bat baleko, pertsonajearen fin gaitzan litzake hori; pertsonajearen desegintzan alegia.

«Irtera ezak» denboraren hesitasuna adierazten du: denboraz eskas eta urri kausitzen dire. Edo hobeago, denbora hetsi batean. Galerazi ezinekoa bada, trajiko egoitzak denbora funts-gabea ta absurdoa mantengatzen ditu. Denek dugu ezaguna EDIPO erregearen trajedia, Zahar-Arokoetarik trajedia beltzerena danez. Odolkeri zenbait eta ogen ez gutxi pilatzen ditu Edipo-k (aita hiltzen du, amarekin ezkontzen da, etb.), baina pratika egoskor hau ezin-bestez dagi. Hots, EDIPO edipo izanik, bere gertakari denak gerta beharrekoak zaizkio. Hemen datza trajediaren kakoa: tunel-bidean sartuz gero, hau da, EDIPO edipo sortuz gero, ez daduka beste irteerarik. Gibelera ezin jo, ta desordena hutsa berriz bere aitzinean. Determinismurik balego, haundienetako bat hauxe litzake; halere, izurri ta epidemia ororen ardura berak darama. Erresponsable kausitzen da EDIPO, ta arduradun balitz bezala, ordain bat esijitzen zaio (2).

EDIPO-ren erruak, errege baten erru zirelako ordaintza garestia zuten. Errege ez balitz ez luke kulparik izango; baina errege ez balitz, ez zituen ogen haiek egingo. Hara Edipo-ren absurdokeria: EDIPO ez zan, Edipo zegoan.

Errege hura egoitza baten morroi zetzan, eta egoitza hura beregain hartu nahi zuen eran, ezaren zulora abiarazten zion.

Bizitzeko behar diren arrazoinak atxematen ez diren arteino, bizitzea absurdo dirudi. Izatearen indarra baino, egoitzaren zama bortitzago den bitartean, funtsgabetasun beltzan erortzen gera.

«...soy consciente de que todo encierra un tremendo absurdo» (3).

Izakeraren ate pobrea absurdoaren erroetan mogitzen zela( ikusten zuen Xabi-k. Ate hau idekitzen dugunean, eta bizitzaren kopetari aurrez-aurre so egiten diogunean, ezer-ezaren zihurtasuna gainditzen da gure baitan. Bizitzaren indarraren ahuleziaz jabetzen gera, beraz, lehen konzientziaren kolpe batetaz.

EDIPO-ren bizkarrak jasan zuena, zoriak (fatum) kargaturik zedukan. Halaber SYSIPHO-k maldan gora zeraman harri haundia, esku misterios batzuek kargaturik zeraman. Camus-en galderak: «bizitzerik merezi al du?» ezetza dakar, galderaren beraren oinarrian funtsgabekeria izugarri bat dagoelako.

«...entre las grijas de las resacas
estoy perdido y en silencio...» (4).

Bidetik hastandu geralako galdurik egotea gerta diteke; baina baitare maiz gertatu ohi da, biderik hautatu ezinean, galdurik aurkitzea. Xabi-ren hitzak bigarren zentzu honetan har genitza, berak ez bai daki noruntz abia litekean. Gainera, zertarako edonora abia, abiatzea bera merezigaitza bada?. Fatuaren aurkako indarkadak oro ezbaiios izanik, zendako edonora abia?.

Ezina da zoriak berak mugatzen duen hesituratik iragaitea, behin eta tunel barnean egon. EDIPO-ren pratikak su-ta-gartsua badirudi ere, eramanikakoa da dudarik gabe. Izan ere, egoitza da, neholaz izantza. Halatan, funtsezko abiadura batek funtsgabekeria guzia hautsi beharko du.

«...Es absurdo que los pajaros vuelen
y que los peces azules naden
es absurdo que vivamos
los que por derecho morimos.» (5)

Hegaztinak zeru-ortzietan eta arrainak itsaso urdinetan iragaitzaz dabiltza. Ez dute herabe bere bideari lotzera: hegan edo igeri, ezin dute herabe izan. Usoa aidean doanean, bere umetara bezala, geuk ere, bizitzan goazila, fin gaitzara edukiko diogu begia. Eta aitzinekoa bere egitez datorkigulako, estakuru denak erbal izango zaizkigu. Hala dio Xabi-k bere neskari eginikako poeman: Hondarra esku artean doan bezala, hutsaren zehar bera ere badoala agian.

«...Atzamarretan hondarra lez
ba goaz
hitzik ez
senti gabe...
Ez aunat, ba zekiñat,
hutsa ordea
zaidan
axola-gabea...» (6).

Lau kantoinetako figurak lau ertze izaten ditu, eta neholaz ezin du lau ez beste izan. Horrela ere, zoriaren gatibutza apurtu ezinekoa iduritzen zaionari, funtsgabe zaizkio bere ingurunea ta bera ere.

Bizitza libre batean sartu nahi duenak, pertsona bakar eta bakan bezala pairatu beharko du irteragaitz egoitza hauxe; eta neholako katerik gura ez duenak (ez erlijioarenak, ez beste edozein), estraina zoriarenak apurtu beharko ditu. «Libro» izatea norberaren boterean eta ahalean izan dedin, norberak estraina *tabula rasa* egin beharko du. Baina *tabula rasa* egite honek ere, zihurtasun eza bat ba dakar: orduntxe ordea pertsona askabidean sar diteke.

Ez pertsonak bezala, baina kontrako mugiden mandatariak bezala aurkitzen geranean (honela ANTHIGONA eta KREON), alkarrekiko eskubidez eta obligazioz lotzen gera. Orduan trajedia ez da pertsonala, alkarrekikoa baino. Halatan moral mugida bateko pertsonajeari tamalezko zerbait baletorkio, Koruak anaiki negar egingo luke.

Honen antzako drama ETXAHUN Barkox-ekoak (1786-1862) bizi izan zuen: bere emaztearen amorantea (Egiapal) akatzen zuelakoan, bere ahaideko adiskide bat hil zuen. Ezkeroztik bizitza dramatiko batean sartu zan; baina ez bakarrik, berarekin ados eta aurka zeudenekin batera sartu zen. ETXAHUN zaharrak hala zien hauei:

«...munduan malerusik aunitz ba girade
baina ni bezain denik ez da nehor ere
..........................................
Adios ene haurrak, seme alabak oro,
Josafat-eko soroan arrakuntra arteino» (7).

Baina trajedia moral honek ez du zer ikusirik esaten ari geranakin: gu pertsonal arazoetan ari gera, bizitzan oinarritzeak merezi duenentz alegia. Horrengaitik lehenlehen pausoko ekintza IZAN/EGON bikotetik hautatzea zaigu. Zeren izateak zertxobait berretzen dio-ta egote hutsari; zera, pertsonal botere sendo bat itsasten dio. Neronek apurtuko dudan neurrian zoria desagertuko da; neronek agintzen dudan eran bakar-bakarrik.

Baldin trajediari geuk haukeratutako drama bat oposa bagenio, orduan soilik ihes ahal genioke.

Hautatze honek bizitza guzia baldintzen digu; Begira bestela *nola* Sartre-n GENET pertsonajeak *zoriaren* hersturaren kontra egin dezakean; zoria borrokatzeko modu bakarra, proiekto pertsonal baten bidez izango du: «Lapur bat izango naiz —dio GENET-ek—, eta krimenak niregan egin duena, horixe berretuko dut» (8).

Hautatzen duen gisan GENET-en burua «genet» izango da. Guziok ere zoriaren edo beste edozein estrukturaren zama halaxe ehortz geneza; ez beste molde batetaz.

## 2. *Hiru drama edo ekintzaldietan trajediaren apurtze bat*

*Lehen ekintzaldi edo drama* (9).

Hamasei urteko bilbotar gazte batek, udazkeneko arratsalde batetan eskolatik datorrelarik, BIZITZA atxematen du. Laket mintzo dire bihak; baina gaua erortzen zaie. Berantetsiaz, gaztea etxeratzen da. Ta idazten du:

17- 9-60 «...quisiera liberarme del sopor que me rodea. Quisiera elevarme del aburguesamiento...»

14-10-60 «...estoy resignado? No lo sé».

Bere ingurunea gaitzesten du gazte hark, bizi-giroak lepoa hestutzen bait dio. Harnasa har dezakean beste giro bat antsiatuaz, burgesgoa apurtu nahi luke. Ikusi, non eta zertan dagoen ba dakus; noren aurka borrokatu ere bai.

Egin nahiaren makuluarekin abiatzea asmatzen du. Nahi du; zer ordea?. Bizitzak eman dion gau hartan idazten jarraitzen du:

9-11-61 «...en el fondo unicamente deseo amar...»

16-11-62 «...necesito rendir y amar el resto de los hombres para justificarme, para justificar el porqué de mi vida».

Maita behar soila dakus garbi. Amodioak bizitza osoa justifikatzen duela, deritzaio. Abiatzea du, beraz, maitasunaren zelaietan zehar. Erromantizismukeria?. Beste «keri» bat?.

Baina berak erabaki du: HAUTAKETA; hara non hasten dan beste drama bat.

*Bigarren ekintzaldia.*

Indarrez harturik eta kasik bortxatuaz, bere erabakiak Gernika-runtz darama; bere ama hil zorian omen datza; ez urrun, Gernika-n. Hirugarren klaseko txartela hartu ta trenez Gernika-ra doa. Bidean dio:

«...Tu eres mi único sentir inequívoco
PATRIA: Mar del rio de mi sangre;
(Tiempo de la construcción de la vida).
. . . . . . . . . . . . .
Patria!
airada de mi sangre!

Niebla y nivel de amargua» —Agata deunaren egunean, 1964—.

21-8-62 «...mi futuro es la actuación que por el método más práctico pueda hacer algo por mi pueblo...»

Bere amaren etxean zer egin ote zuan ez dakigu. Jakin ere, gutxi gora-behera hauxe gertatu zela dakigu:

...hasieran GERNIKA zan.

...eta etxeko pesta tristea ikus ez zezan, aitonaren besoak atera zuten. Indar haundirik ez zuen aiton jaunak; gertatzen ari zena ezkutatzeko ordea, imajinazio poxin bat aski zitzaion. Hontarik aitona ondo hornitua zegoan.

...Irten zirenean galdu-gordean zan pesta; egitekoak tristurazko egitekotan ziran. Baina bere oroitzapenaren ispurrak ez zion dena ebatsi: etsigarri apurtxo bat utzi zion, agian memoria-zati bat («IZAN GIZON, SEME»).

...pesta triste hartatik aitonaren besoak atera zuten, bere amaren hitz gehiagorik entzun ez zezan.

...Xabi haurra omen zan; panorama berri baten bila hasi behar omen zuan. Haurrarotik bila... Bere baitan ez zuan xehetasun guzia, baina gogoratzen zan ibai ertzera hurbildu zirela. Panorama berri bat eginik zedukaten, etxeko pesta tristea ikus ez zezan, eta amaren hitzak entzun ez zitzan, eta... dena ahantzaraziko zion panorama berri bat antolaturik zedukaten.

...basoko hotsak eta habarrotsak ibai ertz hartaraino heltzen ziren. Barat eta emeki zetorkien basotik:

HOTSAK
Hasieran ekintza zan eta FAUSTO ekintzaile zan.
Poetak eta otso emeak gaitzairu zuzena
erditzen daude.
Emeak denak; denek emeki
ekintzan.

HABARROTSAK
Intxaurrak sokana eta gaztinak morkotsa
Herriaren ardura IRAULTZA-k apur beza.

HOTSAK
Hasieran ekintza zan eta ATSULAR ekintzaile zan
«eduzkiak beratzen du ezkoa ta lurra gogortzen»
beruna bezain hasarre Kantauriaren gelditasuna
bero ta lizentziarik gabe
ekintzan.

HABARROTSAK
Sokana intxaurretan eta morkotsa gaztinetan
Herriaren bekaitzkoak ASKATASUNA-ra garamatzan.

HOTSAK
Goethe ta Gero ekintzaile ziren hasera batean
«mailu kolpeak ingudea gogortzen duen bezala»
«debilan harriari goroldiorik lotzen etzaion bezala»
ene HERRI-ko otso emeak eta poetak
ekintzan.

HABARROTSAK
Hazal gabeko fruiturik ez
INDARKADA barik Herria nekez.

...gerla bat egina omen zan aitona jauna. Burgesa zeritzaiona. Erresistentzikoei hillero oraino bost durokoa ematen omen zien. Hotsak-habarrotsak, basotik hurbilduz, hilleroko obligazio malkor eta fariseo hontatik askatu zuten. Errespuestaz aitonak arnegu bikain bat bota zien.

...bost durokoari madarikazio bat bota zion aitona jaunak; honela:

Euritsu atergabeko eurialdi batetan
nagusiaren soroa utzi zuen nekazariak;
aitzurraren kirtena bizkarrean zuelarik
...gizona soroan,
...besteen soroan.

Jorra beharrekoak jorratu ez nahirik
...soroan gizona,
...besteen gizona.

Artoaren morroia ta morroiarena ez zan artoa
honela mintzo ziren,
maizterrak nagusiaren soroa utzi zuenean:
«ZUHAITZ zahar! HARITZ traketsi!
«Ez zaitugu, ez, ADORATZEN»

UAB Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General CEDOC

...une hartan Xabi-k ikasi zuen bere aiton jaunak ez zuela adoratzen. Une hartatik bertatik bere aitonaren eskuak ez zuten Xabi hestutu. Ez zioten aitzinerat eragozpiderik jarri. Aitzitik ordea, aitonaren laguntzarekin presaka etxeratu ziren.

...geria hura ez zala burgesa, zion bere aitonak; baina erresistentzia burgesaren ahuleziaz bihak ados zeuden; eta berehala, gazteak etxeko pesta tristea ikus zezan, bihak etxeratu ziren.

...bere bihotz barnetik —eta esker kanta lez— basoko hotsei ta habarrotsei ihardetsi nahi izan zien. Baitare bere aiton jaunari; honela hasi zen Xabi:

Eguneroko ogia izateko
eguneroko izardia aski ez dalakoan
GOIKO arrotz bateri eskatu behar egunero
eguneroko ogia izateko.

Pentsamenak... aldaretik urrun goizean
gauean... desirak anarkiatik urren
AITONA! ZUHAITZA! AITZURRA!
belaunikaturik oparian goizero
goizero askatasunaren amets.

GOIKOA, hago goian
behekoak gaitezen beheran
hobeago.

...ur gutxi zeraman ibaiak arratsalde hartan; baina amaren etxeraino, arrastaka bederen, ur tanto zenbait allegatzen zen. Etxeko pesta tristea gazte hark ikus zezan, ur apurreko ibai pobrea heiekin batera jin zan... baina HERIOTZA ta BIZITZA zituzten saltzaile...

...hillaren hilletan kandela bi besterik ez,
bihak botilla bihetan,
lolotuak bihak pistuz geroz
hutsak beste bihak geria ezkeroz.

Kandelak lolotuak
hutsak botillak
Hats gabeko gorputz erne-betea
sofrikariorik gabe erdiztu zan;
seksoaren zauri idekiatik heriotza sartu zitzaion
sartu, gainezka egin arte.

Bat-batean bizitza kanporatu zan.
Heriotza erne
hilletak siestan
ama zenaren gorputza

...etzauntzan:
hilla
kandelak
eta botilla.

...bularra eskapularioen zamaz oker-oker eginik, ainitz atso barneratzen ari zan. Atsoak defuntorietan ziren. Zelakoetan, «Salto a la fama»-ko defuntorio tristeetan. Debozione alu baten ahuleziapean ama zenari opari zenbait eskeini zioten.

Picasso-k margo galanta (saldutakoan oso garestia)
Aita Saindu-sainduak ulergaitz hitzak (latinez omen)
Beste artista batek zine
zintakada bat,
Sorozabal
zeritzaionak pentagrama bizpahiru. Oparian zan ere Arrabal.

...eta opariaren haunditasunaz arras unaturik, nekaturik, akiturik, iroturik, leher eginik, urraturik, ezindurik, etenik, asperturik, luzetsirik, etabarrik etabarrik etabar zeuden atsoak, gaxoak, gaxo-gaxoak,

hilletak siestan
zauria gorputzan
ama zena erloan.
Hildako bat
kandela bi
hiru debozione
«in paradisum» latinez.

...ama GERNIKA-k ez zuen hil beharrik, alaba bat erdiztu baino. Baina arbitrioseko mikeleteak bere bizitzaren errenta bahitu zuten

sagardoa ta kupela
Nafarroa-ko garia
Aya-ko esnea
euskal-i-etxea.

...hillaren hilletan testigu gehiegi oparian
...hats-beherapenez atsoak
kandelak
botillak
plegariak
amen.

...hirurak, eta debotuki, etxeko pesta tristea ikusi zuten. Hirurek sor araziko zuten alaba berria; ...prometaturikakoa: aitonak, errekak eta hirurak. «GIZON NAIZ, AMA, IKASI DUT EKINTZAZ MADARIKATZEN» esan zuen gazte hark Gernika-n.

*Hirurgarren ekintzaldia.*

Ama GERNIKA hil zitzaion eta hirurgarren klaseko txartela berriro hartuaz, Bilbo-ra heldu zen prometaturikako alaba erdiztera, eta ekintzaz madarikatzera. Herriaren aldeko bere ekintzaren atsedenaldi batean hala dio:

«...ya he muerto en el robledal de la sierra

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

EN LA MISMA GERNIKA
CAI YO, DE VIVO A MUERTO» (10).

Baina Bentaundi-n zirenak fusilatu egin zuten.

OIHALA



## 3. *Amaia da hasiera*

Gure arbasoen esaera zaharrak bukaera ta hasiera IZAN-maila berdinean ezartzen ditu; haiek ba zekitan bizitzaren aro guziak aurreko aroaren hilletak ospatu ondoren zentozela: Haurraroa hobiratuz gero, Gaztaroan sar gindezke; eta Gaztaroaren hatsak lur sakonean zanpatu arteino, ezin dukegu Zuhurarora heldu.

Bada bizitzaren urrats oroetan, heriotza kausitzen da. Edonork zernahi hautatu duelarik, beste bere haukera posibleen heriotza firmatzen du. Halatan, Xabi-ren hautaketak trajediaren apurtzea zekarrela, zinetan esan dezakegu; gogora ditzagun bestalaz bere hitzak: «...ene burua justifika dedin, eta nere bizitzak justifikazio bat ukan dezan, besteak maita behar ditut... Nere etorkizun bakarra herriaren alde egin dezakean pratika-bidea izango da».

Hauxe haukeratuz gero, funts batean itsasten [da,] eta absurdo guziak hautsi. Absurdo-aroko heriotzarekin funts-dun aro berri bat bataiatzen duelako, hobiratzen duen heriotza ESISTENTZIALA izango zaio. Hots, egonetik IZAN-era hurbil arazten dio senditzen duen heriotz horrek.

IZAN koordenada berriok heriotzaruntz abia araziko dute: honela ESENTZIALA ere da bere heriotza. Zeren, behin bere esistentzial kezka larria benetako funts baten gainean ezarrita, heriotza ez da konzetu soila, baizik fisikua izango zaio. Bere fisiku izate osoa bizitzatik fisiku heriotzara lehiatuko baita.

Iragan zuen aroa (amaia) aro berri batean (hasera) amiltzen da; baina dialektikaren lege onenetan, hasera honek amaia ekarriko dio era berean. Pauso berri hau eman ondoren, heriotzaz hasiko da ozenki kantatzen; eta ondo dakigu heriotzaren imajina hau ez duela sinbolu gisa erabiliko: bere heriotzaren kantua metafora soil bat ez dala esan nahi dut, hezur-haragi egin duen gai larri bat baino.

> «...ya he muerto en el robledal de la sierra
> en el trigal y el riachuelo
> entre mi gente brava
> en el musgo de enero,
> junto a Otxandiano y Mungia
> junto a Bakio y Lekeitio
> junto a Durango y Markina
> junto a Etxebarria y Areitio
> EN LA MISMA GERNIKA
> CAI YO, DE VIVO A MUERTO» (11)

1963 gnez. geroztik Gernika-n erori zala adiarazten zuenean, bere erabaki sendoaren ondorio seriosa zekusan; erabaki hau hasera ta bukaera zitzaion hain zuzen. Hil eta erori ziren «gente brava»-rekin solidarizatuz, bera ere erortzen da.

*Lehenik:* pikondotik jausten da; absurdo «tegia» uzten du, beste «tegi» bat atxemanaz. Aberriaren borrokan hil direnek hutsik utzi duten «tegia» defendituko du. «Nere aitaren etxea defendituko dut» beste poeta batek bezala, zion ere Xabin-ek.

*Bigarren:* Herri itzalean jarraitzeko zina egin duten guziak jausten diren bezala, «de vivo a muerto» erori zen Gernika-n bera ere. Hoek fisikoki jausten dire. Heriotz biziaren sortzaile-lanetan hasten direnek, bere burua hilda balitza jotzen dute, nahiz eta bizirik izan. Etxebarrieta-ren zentzu berdintsu bat bere herrikide Aresti baitan aurkitzeak ez gaitu neholaz harritzen, ezagutu bezala Aresti-ren zina ezagutu ondoren:

> (zina) «...bizi behar badut, izan dadila bakarrik
> nire lurreko pausoak argitzeagatik
> nire adimentu doloretua eta nire herria
> estaltzen dituen lanbroa urratzeagatik»..
>
> (ondorioa) «...Bizi behar badut... hiltzea izanen litzake
> enganio dollor bat, gezur handi bat
> Bakarrik bizi izatea...
> Neke haunditan bizia suportatzea honela:
> holaxen korri dadin odola nire zainetatik
> eskiribatzeagatik» (12).
>
> (amen) «...Orain ez dut nik ezer han
> hil nintzelako Gernika-n» (13).

Benetako heriotzaren zihurtasun honek beste zinetasun bat dakarkio oraindik: ondorioen zihurtasuna, ereindako alean sinestea alegia. Alea hil ezkeroz, fruitua sor araziko duen segurantzak heriotzari indarra ematen dio.

> «...solo en los sembrados no nacidos
> hay algo
> ..que yo espero» (14).

Eta hazi ezpere, ereindakoa etorri ta giartuko da, eta fruitua luzatuko:

> «...hay que dar ahora!
> ...ahora
> para que puedan comer mañana.
> Esta noche pasan hambre
> de sueños bellos en sus camas
> y ya no puedo sobre esto hacer nada
> Pero hay que dar ahora
> para que tengan mañana
> a la madrugada» (15).

Amaia hasera danean zertaz abestuko da?. Aberrikideen heriotzaz abestuko dugu eta baitare eman genduen pauso txarretaz. Baina fin-finean hasera amaia dateke.

## 4. *Iraultzailearen heriotza*

Azken zati honen izenburua arrunt pretenzioa dalarik, abots haundian HEGEL irakurtzea mugatuko naiz; eta bere PROPEDEUTIQUE PHILOSOPHIQUE liburuan irakasten dizkigun «nagusi ta morroiaren arteko har-emanak» batik-bat zabalduko ditut.

Che-ren pentsamendu batzuk komentatzea ainitz snobago litzake, edo Malcolm X gnarenak, edo beste hamaika iraultzaile amorratuetatik ateratako mami aberatsaz zertxobait idaztea.

Halere ardatz nagusietara itzultzea hobeago zaigukelakoan nago, bai *etiketerismua* apurtzearren eta baitare funtsezko ideia nagusi bat adiaraztearren (askatzaleak oro HEGEL baitan oinarritzen dire; ezkerzaleen muin osoa orobat HEGEL-en dialektikari derio).

Liburuaren lehen zatia teoriko dan konzientziaz mintzo zaigu, baina ni bigarrenari, hau da, «beregainki-konzientziaz» aritzen dan zatiari (de soi et pour soi) lotuko natzaio.

«Neregain» izate hau (de soi) desioekin batera hasten zaigu, zeren lehendabizi lapurtuko dugun gauza, desiratzen eta antsiatzen dugun gauza bait da. Zerbaiteren faltean, edo-ta hutsune sendimenduaren jabe geranean, desira bat sortzen zaigu; halatan norberagandik arrotz kausitzen gera, zeren jabe izan-ta guztiz, hutsune soil baten *jabe gera;* falta zaigunaren jabetasuna bakar-bakarrik dugu.

Arrotzkeria honeri, beraz, desiraren satisfazioa darraikio; hots, norberaren norberaz ohartzeak gauza desiratuaren supresioa dakar. Eta antsiatzen duguna lortzerakoan, desiratu gauza apurtzen dugu argi ta garbi, gauza bera gureganatzen dugulako. Noiz gera «guregain»?. Ez gure berri dakigunean, gure desioen jakinean gaudenean baizik, dio HEGEL-ek.

ezagutuaz, segur bait dakigu heriotzaren muinean bizi gerala. Hil-harri dat («un monumento funerario») zan bere buru propioari eskein zezaiokean oparik ederrena.

«...ya sé que en los rastrojos
habrá sangres esparcidas
junto a los blancos ojos fríos
esperando el verde de un estío
para formar banderas en la muerte.
Sí; ya sé que no habrá suerte» (18)

Xabi-k bere tamaiezko zihurtasunaren berri ondo zekien, eta suerte onik ez zuela izango ere bai; ez zuen ordea atzera egin. Hemen dago morrontzaren ukatzerik haundiena. Iraultzailearen ihardespenik bortitzena hauxe da: bere bizitza propioaren barnean heriotza ta bizia ahoz-aho mintzo direla. Iraultzailearen heriotza ez da fingaitz bat, gaitz batzuren fina baizik. Iraultzaileak ba daki «ala bat ala beste»-ko borrokan sartu dela, ta etsiteak bere bizitzarako gaitzik haundiena dakarkiola.

Bere bizitza ez du bizi soilaren neurriarekin kontsideratzen, «nola bizi»-tzearen araberan baino; pean bizitzeak gaineko jauntxoaren ohorea dakar, halatan «pekoaren» haunditasuna bere gainekoaren garailetasunean datza. Sasi-haunditasun bat beraz, edo beldurtiaren etsitze sumingarri bat besterik ez. «Nola bizi» da iraultzailearen tema, ta ez «nolabait» bizi.

Nahiz eta horrenbeste bider entzuna ukan, ez dut uste heriotzaren gaia hau burges txikien gaia danik; borrokatik urrun, bere egokitasunaren txabola baketsutik heriotzaz ari dana era, ez dut nik kritikatuko. Nork esan dezake bada. Unamuno-ren karraxia (cada vez que pienso/ que me tengo que morir/ tiendo la capa en el suelo/ y no me harto de dormir»). burges karraxia zenik?. Edo Nietzsche-ren beste hura («si je meurs, c'est que je suis bête») haia zenik?.

Morrontzatik ihes egiteko modu bakarra heriotzkor gerla bat egitea dala onena erabaki duena, eta are gehiago borrokan hil bada, nola kritika genezake?.

Eta gure esklabu egoitza salatuaz, bakar-bakarrik joateko beldur izan ez dana, bozkarioz behar dugu kantatu... Ez dagoela Euskal trajediarik ondo frogatuz gero, gure laguna bakarrik joan zan. Udaberri zan. Oraino idatzi berri zuen:

«...Solo queda marcharme
Solo.
Y esperar que la tierra
aun nos quiera» (19).

# OHARRAK

(1) Bizpahiru aste hil baino lehen, honela idatzi zidan Rikardo zanak.

(2) Antzinako Grekeren mundu-ikusmenean mundua Alimalia haundi bat zen. Eta gizona munduaren ordenarekin aikartu ta uztartu beherrean zegoen. Halakatze hau ordea zaila dirudi, zeren mundu hura denboratik at zetzan, gizona berriz denboran. Gizona munduarekin nola bat egin?. Hara hemen heien prolema nagusia, moral kutsukua gainera: tradizio ta lege zaharrak direla medio, gizona Estaduarekin bat diteke. Eta Estaduak, mundu ordenaren zaindaritza dadukanez, jainkoen eta gizonen arteko zubia heusten du. Estadua, beraz, jainko txiki bat zen. EDIPO, errege guziak bezala, mundu ordenaren zaindari ta zubi bakarra zen.

(3) Xabi Etxebarrieta-k 1982 gngo. udaberrian idatzita. Bere idatzien zatiak ez ditut, bat ezatzik, euskeratuko.

(4) X.E. «Las turbias potestades» poesiatik, 24-5-67.

(5) X.E. «El ruido de la vida» poesiatik, 4-6-61.

(6) X.E. «Adios a un amor» poesiatik, 28-12-63.

(7) Etxahun Barkox-ekoak «mündian malerusik hanitch bagirade» eta «bi berset dolorusik nahi tizüt khantatü» bertsoetik aterata.

(8) Sartre «Saint Genet, comedien et martyr», Gallimard N.R.F.

(9) DRAMA hitzak «ekintza» esan nahi du grekeraz. Egoitza absurdoa eta funts-gabeak oro ekintzaren sentiduarekin apurtzen dire.

(10) X.E. «voces de Amianto y Calma» poesiatik, 15-5-63.

(11) Berdin.

Abendlandes» liburuaren 2 gn. alean hara zer dion: «Ixtoria zehar jokuan dagoen gauza bakarra bizitza da, beti eta baka-

(12) G. Aresti «Euskal Harria»-aberri ilunaren hirugarren sonetoa-tik, 138 horrian (izkiribatzeko modua neronek aldatu dut).

(13) G. Aresti «Euskal Harria»-ba dakizu nun nagoan-poematik, 689 horrian.

(14) X.E. «Voces de Amianto y Calma» poesiatik, 15-5-63.

(15) X.E. «Hay que dar ahora» poesiatik, 18-12-63.

(16) Marx baitan (1818-83) borroka bera baino, borrokaren bide lort dezakean profilazioa garrantzitsuago da. Material ondasunaren gomendio iratzarri ohi da nagusi-morroi arteko eztabaida.

Hegel eta nazismo arteko zubia egin duen filosofuak berriz, SPLENGLER-k alegia (1880-1936), bere «Der Untergang des Abendlandes» liburuaren 2. gn. alean hara zer dion: «Ixtoria zehar jokuan dagoen gauza bakarra bizitza da, beti eta bakarrik bizitza, eta arraza, eta botere nahiaren gailurtasuna; eta neholaz egiaren, edo asmakizunaren, edo diruaren atxikitzea. Orokor ixtoria hau da munduaren epaitzeko mahaina... Bai egia eta bai justizia indarraren pean eta arrazaren pean ezartzen ditu. Ekintza baino egia garrantzitzuago zitzaien gizonak, edo-ta indarra baino justizia bizkorrago zitzaien gizonak eta herriak oro (mahain horrek) heriotzarat epaitu ditu...».

(17) X.E.-ren egunkariatik 25-9-62.

(18) X.E. «El ruido de la vida» poemako hirugarren zatian 31-8-62.

(19) Xabi Etxebarrieta-k, hil aurretik, idatzi zuen azken poematxotik.



"" BALDIN ETA GURE GUDA-OIHUA NORBAITENGANA HELDUARAZI BADUGU, GURE HARMAK HARTZEKO NORBAIT GELDITZEN BADA, ETA METRALLETAREN TXISTU-SOINUAK KANTATZEKO PREST DAUDEN GIZONAK GARAIPEN ETA GERLA-KARRAXIZ BORROKATZEKO BIDEAN BADAUDE: ONGI ETORRIA BEDI, HERIOTZA, NUN-NAHI DATORKIGULARIK ""

# CHE



galtzairu oker ezina
kondairaren erdi-mina
gerlaz suntsitu beharra dela
lehena gerlaz egina

ezker nagia Europa-n
aberatsen mahaietan
hiretzat erruz laudorioak
Paris-eko snack barretan

ureo bila kabiroia
basoan keru lehoina
bizi direnek jantziko ditek
hildakoaren koroina

harri-arotik bornikora
injustizia beti gora
ez duk zilegi zapuztutzen
haundi-haundien loa



izarrak oro itzali
Viet Nam dena kixkali
galtzaz ogia ohi den bezala
begiak zaizkit estali

